

BAI HORIXE

Sagardoa ere 'ardo' lehenik

Filologo eta historialariei kasu egiten badiegu, 'ardo' erdarazko 'vino' baino zerbait gehiago da

17.02.11 - 02:27 - RUFINO IRAOLA |

Sagardoaren denboraldian gaude bete-betean. Handia da sagardotegiak hartu duen indarra. Gaur egun, nonahi irekiko dizute sagardotegia, baita orain urte batzuk arte inork pentsatuko ez zukeen lekuetan ere, adibidez Nafarroan, eta hori da ardoaren sehaskaraino sartzea. Sagardoa merkatuan gero eta hedatuago ageri da. Lehengo sagardotegi familiar hark dimentsio industrialia hartu du. Tokitan geratu dira sagardotegia «bertsolarien unibertsitatea» omen zeneko garaiak.

Badakigu oraindik ardoa dela nagusi eta sagardoaren kontsumoak inoiz ere ez diola gaina hartuko ardoarenari, baina sagardoa eta garagardoa gero eta maizago ikusten dira mostradorean eta mahaian.

Hain zuzen, kontuz garagardoarekin; gorakada ikaragarria egin omen du azken urteotan, batez ere gazteen ohitura-aldaketari esker. Intuizioak balio badu, esango nuke gaur egun baxoerdiak baino zurito gehiago kontsumitzen dela toki askotan.

Orain jolas bat planteatu nahi dut. Filologo eta historialariei kasu egiten badiegu, bistan da euskaraz 'ardo' erdarazko 'vino' baino zerbait gehiago dela. Beste era batean esanda, sagardoa nahiz garagardoa ere «ardo» ziren lehenengo. Gero etorri zen espezifikazio zehatza, 'ardo' hitzari 'sagar' edo 'garagar' erroa eranstean. Gertatu dena da mahatsaren zukua kantitatez ugariagoa izanik, 'ardo' izena ere beretzat hartu duela oso-osorik.

Baina begira zeinen urruti dauden 'vino'tik 'sidra', 'cerveza', eta abar. Eta ez al da garbi ikusten hizkuntza bakoitzak hitzen historia osatzeko dauzkan modu eta sitema diferentek? Horretaz ohar-tzeari deitzen nion jolasa, batez ere gogoeta horretan gozatzeari.

Dena dela, zalantza handirik gabe, ardoak edozein mahairi eman ohi dio halako kolore eta itxura berezi bat, ezinbesteko bizigarria izan da edozein ospakizun eta gertakari handietan. Imajina al liteke ardo onik gabeko otordu berezirik?

Noiztik ote dabil gure artean, bere on-gaitz guztiekin? Erromatarrek ekarri omen zuten, eta Erdi Arotik aurrera hedatu zen gure artean, kristautasunari esker. Dakiguna da monasterioen inguruan sortu zirela lehenengo mahastiak.

Beraz, ardoa noizkoa den badakigu, baina noizkoa ote sagardoa? Batzuek diote Afrikatik inportatua dela sagar-arbola; beste batzuek, berriz, arabiarrek ekarri zutela. Zenbait teoriaren arabera, erromatarrek irakatsi ziguten sagardoa egiteko teknika. Pliniok I. mendean aipatzen omen du jadanik «euskaldunek egiten duten menbrilo antzeko mama gozoa», sagardoa.

TAGS RELACIONADOS

sagardoa, ardo, lehenik

ANUNCIOS GOOGLE

Diseño de páginas web

Empresa dedicada al diseño de páginas web y el diseño gráfico.
www.ankestudio.com

Fichero de Morosos

Consulta Online del Registro de Aceptaciones Impagadas
elinforma.com

Tuve psoriasis

Mi psoriasis desapareció como nieve bajo el sol.
www.Equilac.com

Venta Vivienda Guipuzcoa

Viviendas en Construcción.Excelente calidad-precio. Infórmate Aquí!
www.GrupoEibar.com

ENLACES VOCENTO

ABC.es
El Correo
nortecastilla.es
Elcomerciodigital.com
SUR digital
Qué.es
La Voz Digital
Punto Radio
hoyCinema
Infoempleo
11870.com

Hoy Digital
La Rioja.com
DiarioVasco.com
Ideal digital
Las Provincias
El Diario Montañés
Laverdad.es
Finanzas y planes de
hoyMotor
Autocasion

Powered by  SARENIT

 **diariiovasco.com**

© Copyright DIARIOVASCO.COM DIGITAL VASCA, S.L.U.
Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 1.786, Folio 141, Sección 8ª, Hoja SS-16552, Inscripción 1ª C.I.F.: B20677878
Domicilio social en Camino de Portuebe, 2 San Sebastián 20018
Correo electrónico de contacto contactanos@diariiovasco.com
Copyright © Digital Vasca S.L. , San Sebastián. , 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización, total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.

Contactar | Mapa Web | Aviso legal | Política de privacidad | Publicidad | Master El Correo